

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1427

*254/2020 EBAZPENA, otsailaren 18koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Ana Iruarrizaga Díez andrea Erakunde Sanitario Integratuan Arreta Integratuko zuzendariorde medikoa izendatu da, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESlan.*

1552/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESlan Erakunde Sanitario Integratuan Arreta Integratuko Zuzendariorde Medikoaren lanpostu bat, izendapen aske bidez, betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Ana Iruarrizaga Díez andreak dituen ezagutza akademikoak eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Erakunde Sanitario Integratuan Arreta Integratuko Zuzendariorde Medikoarena.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ana Iruarrizaga Díez andrea izendatzea Erakunde Sanitario Integratuan Arreta Integratuko zuzendariorde medikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESlan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2020ko martxoaren 1etik aurrera izango ditu izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio, eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta jatorrizko zerbitzu-erakundeari ebazpen honen berri ematea.

Bostgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2020ko otsailaren 18a.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentea,  
JON GUAJARDO REMACHA.